

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GERNIKA-LUMOKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gernika-Lumoko Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak aldi baterako 7 kontratu mugagabe bihurtu dituela eta jokamolde bera izan dute bi Erakunde Autonomok ere aldi baterako beste 14 kontraturekin; honek guztiak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratzen ditu.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak eta Erakunde Autonomoek urratu egin dituztela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: 2.075 mila euroko obrak horretarako eskumenik ez zuen udal atal batek esleitu ditu; betetzen ari diren hainbat zerbitzu ez dira lizitatu eta horrek publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu; gainera, hirigintzako hitzarmen batean exijitzen ziren urbanizazio lanak, 657 mila euroko azken kostua izan dutenak eta 2008ko ekitaldian 155 mila euroko zenbatekoarekin exekutatu zirenak, publizitate eta lehia printzipioak urratuta gauzatu dira; OTA zerbitzua ezarri eta kudeatzeko kontratua aldatu egin da eta ondorioz, kostua % 40 garestitu da eta kudeatutako plaza kopurua, berriz, % 164 gehitu da; honek guztiak kontratazio arauetako lehiaketa printzipioak urratzen ditu, desitxuratu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa ere.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 644 mila euroan murriztu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, Udalak finantza egoerari dagokionez 2006-2008 aldian aurrezki garbi positiboa erakutsi du; horrek inbertsio programa apala finantzatzeko bide emango dio; hala ere, 2008an Udalkutxaren likidazio negatiboa erregistratu izan balitz, ratioa nabarmen urrituko litzatekeela adierazi da, Diruzaintza Geldikina bezalaxe. Nolanahi dela ere, udalak ez du zorpetze maila handirik.